



LITERAKTUM

Hitzen hiria

LITERAKTUM 18: BALORAZIOA

Bernardo Atxagak eta Jose Kruz Gurrutxagak eman zioten amaiera aurtengo Literaktum jaialdiari *Martuteneko kartzelan* emanaldiarekin. Amaiera ezin hobea izan zen larunbatekoa; goizez *Pio Barojari bisitan* ibilbide literarioa izan genuen Parte Zaharrean barrena, eta arratsalde, berriz, Iban Zalduek eta Ramon Saizarbitoriak txiki utzi zuten Troa-Zubieta liburu-denda. Gau partean, *Martuteneko kartzelan* emanaldiarekin lepo bete zen Loiola kultur etxeko aretoa.

laz abiatutako bidetik ekin zion aurten ere Literaktumek, minaren gaia ardatz hartuta eta txikientzako programazio berezia antolatuta. Jaialdiaren programazioak jasotako erantzuna oso ona izan da, eta emanaldi batzuk zinez arrakastatsuak izan dira. Pozik egoteko moduan gaude, beraz, jendeari literatura hurbiltzea eta hausnarketarako gaiak mahai gainean jartzeko helburuak aski beteak izan baitira.

Datuei erreparatuz gero, **3.000 lagunetik gora** hurbildu dira jaialdian programatutako **29 jardueretara**, bi erakusketetara egindako bisitaldiak barne hartuta. Programazio zabala, askotariko gaiekin, eta jarduera bereziak izan dira jaialdiaren ardatz, eta edonork bere gustuko hitzaldia, emanaldia edo musika topatzeko aukera izan du. Arlo eta diziplina desberdinetan lanean diharduten **54 gonbidatu** izan ditugu gure artean,

eta literaturaz zein beste zenbait gairi buruzko ikuspegi eta iritzi anitzak plazaratu dituzte.

Azpirarratzekoak dira zenbait hitzaldik eragin duten **interesa eta jakin-mina**, eta esate baterako, gainezka egon ziren Nacho Carretero eta David Trueba, Ramon Saizarbitoria eta Iban Zaldúa eta Manuel Vilas eta Juan José Millás idazleen hitzaldiak. *Martuteneko kartzelan* estreinaldiak Loiolako aretoa bete zuen, *Sonetos del amor oscuro* lanak bezalaxe, eta *Afoniak* soinu-sorkuntzak zein Harkaitz Canoren *Fakirraren ahotsa* liburuaren aurkezpenak jendea erakarri zuten. Ezin ahaztu, bestetik, *Pío Barojari bisitan* ibilbide literarioa eta *Anna Karenina* liburuari buruzko solasaldia eta afaria, zeinetan **80 lagun** bildu ziren.

Elkarlanean landutako jarduerak ere arrakastatsuak izan dira, besteak beste, EHUrekin *Pentsatu!* Jardunaldien baitan landutakoek jende andana bildu zuten. Danele Sarriguartek eta Fernando Broncanok kulturari buruz egindako kritika zein hausnarketei adi-adi egon ziren Kaxilda liburu-dendan bildutakoak. Arratsalde, berriz, filosofiari eta minari lotutako mikro-eztabaida biziak girotu zuten Tabakalerako Kutxa Kultur espazioa. Liburu-denden elkartearekin landutako hiru emanaldiak arrakastatsuak izan diren, eta liburu artean gai desberdinei buruz mintzatzeak beste xarma bat duela erakutsi zuten. Bestalde, ehunka izan ziren liburu-sorten zozketan parte hartu zuten ikus-entzuleak. Euskadiko Filmategiarekin, aldiz, Eburne Portelaren film gustukoena eskaini zen, *La cinta blanca*.

Jaialdiaren hedapenari dagokionez, webgunetik eta sare sozialetatik egunero informazioa jariatzen zen, eta emanaldiei buruzko kronikak eta iritziak jaso ziren Literaktum blogean. Behin jaialdia amaituta, 10 eguneko programazioa laburbiltzen duten argazkiak eta informazioa daude ikusgai www.literaktum.eus webgunean.